

BERRIGARA

*San Martzialeko
erromeria igandean*

3. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, ekainak 30

**Agustin
Aranzabal**
Baloiarekin maisu



LARRAÑAGA Autoeskola



Artekale, 22

Tfnoa: 76 16 63

BERGARA



Altzarien dekorazio eta erakusketa

- BETIKO LEIHOAK GAURKO TEKNOLOJIARI EGOKITUTA
- EZ HOTZIK, EZ ZARATARIK, EZ URIK!!
- LEIHO TERMOAKUSTIKOAK
- ATEAK
- ARMAIRUAK
- EGURREZ EGINDAKO LANAK


ARROZTEGIA

UGARTE

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

San Juan auzoa 1 A 6. moduloa (Barruti)
Telefona eta Faxe: 76 54 91

**ZATOK GURE
ERAKUSKETA IKUSTERA**



TORREALDAY

aholkulari-kontsultoreak

Bidekurutzeta 6, 2 Ezkerrean

Tfnoa eta Faxe: 76 53 80

- ARLO FISKALA
- KONTABILITATEA
- FRANKIZIAK
- GIZA BALIABIDEAK
- ARLO LABORALA
- ASEGURUAK
- AUDITORIARIK

1979tik enpresa txiki eta erdi mailako enpresen zerbitzura profesionalen osatutako taldea, orain Bergaran

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:
JARDUN Elkarte.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate
Erredakzioa:
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezar
Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola

Maripi Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elorza

Miguel Angel Elkoroberezar

Alex Labaien

Komikiak:

Biltor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.000 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?


JAVIER YEREGUI Udaleko arkitektoa

- Zelan dago arau subsidiarioen gaia?

- Bueno, maiatzaren 26an behin behineko onarpenera eman genien arau subsidiarioei eta uztailearen lehenengotan dokumentazio guztia Diputaziora bidaliko dugu, honek behin betiko onarpenera eman diezan. Udalak bukatu du bere lana eta orain Diputazioari dagokio bere erabakia ematea. Horretarako 6 hilabete epea izango du.

- Zer gertatu da Frontoiko etxeekin?

- Orain dauden egoera berean gelditzen dira. Bere momentuan Konfederazio Hidrografikoak baimena eman zuen eta kontzesio administratibo bati esker egin ahal izan zirela esaten da, besterik ez. Baina badira beste ak-



tuazio garrantzitsu batzuk: 1959eko Plan Orokorra martxan jartzen da, Ibargarai urbanizatzeko irizpideak zehazten dira, San Juan, Mekolalde eta Biltoki inguruko lur industrialak (orain arte rurala izan dena) konsolidatzen da... Berehalako jardunei dagokienean, datorren urtean San Antonio, Ibargarai eta kaskoan lanean hasi gaitzke.

"Datorren urtean arau subsidiarioen plan partzialekin lanean hasi gaitzke"

I T U R R I O N E T I K

San Juanen bi ardi eta moxal bat akabatu zituzten txakurrak agertu dira

San Juan auzoan bi ardi eta moxal bat akabatu zituzten txakurren jabea agertu da. Aurreko astean Berrigararen horren inguruko albistea irakurri zuen jabeak eta bertan ematen zen azalpenen arabera, bere txakurrak izango ote ziren susmatu zuen. Handik lasterrera hori baieztatu ahal izan zuen eta berehala San Juango baserritarrekin harremanetan jarri zen. Baserritarrek argi utzi zioten ez zutela inolako indemnizaziorik nahi, gauzak argiru eta horrelako ekintzarik berriro ez errepikatzea baizik. Beraz, auzia argituta geratu da. Jabeak txakurretako bat akabatu egingo du oso arriskutsua delako.

E S A N D U T E

"Aitortu ezineko azpijokoak eman ez daitezela pelotarietako abokatu baten aholkularitza izatea ondo ikusten dut. Gu enpresa sendotzeko lanetan ari gara, nahiz eta alde guztietatik oztopoak besterik ez aurkitu. Gauzak behar diren moduan egitea gustatzen zaigu eta, geldirik gaudela ematen badu ere, ez da horrela eta aurrera jarraituko dugu. Bestalde, pena ematen dit korredoreen taldea alde batera uzteak. Nik behintzat guztiarekin kontaktatzen dut"

FERNANDO DUBLANG
Eskutaldeako enpresaria
EL CORREO

"Momentu batean nere bizitza aldatu zen eta heriotz arriskuak bizitzera eta nere esperientziak beste batzuekin konpartitzera animatu zidan. Inoiz baino biziago sentitzeak, lanean eta borrokan jarraitzeko laguntzen dit"

LIERNI IRIZAR
Seropositiboa
EGIN



LA ULTIMA SEDUCCION

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.


Igandea: 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30



Zinea

▼▼ **Linda Fiorentino** aktoreak *femme fatale* baten papera lantzen du **John Dahlen** filmie honetan. **Bridgetek (Fiorentino)** modu azkarrean guztia lortu nahi du eta berdin zaio bere senarrari medikamentuen trafikoarekin irabazitako milioi bat dolar lapurtzea. Herri txiki batean ezkutatu arren, detektibe pribatuak izango ditu atzetik eta **Mike (Peter Berg)** bere amodio berriaren laguntzaz aurrera egin nahi izango du. Baina traizio asko izango dira tartean...



Deiak

▼ **"Re9n"** (*Renueven* irakurri) txotxongilo antzezlanaren bihar larunbata 20.30, 22.30 eta 23.30etan Nahikari tabernan. Nartxi Azkargorta eta Karlos Odriozolaren eskutik.

▼ **Kalya** Ukrainiako dantza taldea bihar larunbata 8etan Miguel Altuna Institutu berrian.

▼ **Herri Olinpiaden VI.** edizioa astelehenetik aurrera. Probak arratsaldez jokatu dira.

▼ **Gerontologia.** Arrasateko ICTE (Instituto Comunitario de Tercera Edad) Institutuak *"Pertsona nagusientzako arreta programa"* ikastaroa iragarri du uztailearen 10etik 13ra, 17.30etatik 20.00etara. Argibideak 79 02 11 eta 77 05 00 (Ana Bujanda) telefonoetan.


▼ **Elgetako jaiak**

Azoka Nagusiko jaiak ospatuko dira astebukaera honetan Elgetan. Gaur 23.30etan bolo txapelketa, ordu berean Tapia eta Leturia Band (aldamenen ARGIAko argazkian ikus dezakezue Tapia), Bizkar Hezurra eta Pottoka taldeekin kontzertua eta goizaldeko 5.30etan txokolotada. Bihar larunbata 15.30etan Euskadiko XI. Mendiko Txirindulari Lasterketa, 19.45tan zezena eta 23.30etan Joselu Anaiak-ekin erromeria. Igandean 9etan ganadu erakusketa eta feriaren hasiera, 13.30etan sari banaketa, 5etan pelota partiduak eta ordu bietan sardinaren entierrua.



Ogia

▼ **Igandea 2:** Mizpildi.



GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 30:** Guallar/Morales.
- ▼ **Larunbata 1:** Estella.
- ▼ **Igandea 2:** Estella.
- ▼ **Astelehena 3:** Mozos.
- ▼ **Astearte 4:** Camacho.
- ▼ **Asteazkena 5:** Puy.
- ▼ **Osteguna 6:** Guallar.

AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai, 2 behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

ZURICH



UNIBER

HISPANIA

LXUKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 51 62
BERGARA

Kirol Argazkiak

Kirol Argazkien lehiaketara aurkeztutako lanak ikusgai

Kirol argazkien lehiaketan parte hartu duten argazki onenak ikusi ahal izango dira uztailearen 9ra arte Kultur Etxeko erakusaretoan. Bosgarren edizio honetan 24 argazkilarik hartu dute parte, 14k zuribeltzeko kategorian eta beste 10 argazkilarik koloretan.

Aurkeztutako 98 argazkiak aztertu ondoren, Jesús Gutiérrez Diputazioako Kirol Teknikariak, Ramon Mujika Elgoibarko Udaleko Kirol teknikariak eta Gerardo Eskarza Oñatiko Zubikoa kiroldegiko zuzendariak osatzen zuten epaimahaiak, aho batez, ondoko sariak ematea erabaki zuen aurreko astean: koloretan Agustín Gurrutxaga bergararrak eraman du lehen saria, Juan Mari Tolin zarautzarrak bigarrena, hirugarren Juan Armentia bilbotarra sailkatu da eta herriko onena, berriz, Miren Leturia izan da.

Zuribeltzean, Berangoko J. Pedro Fernándezek eskuratu du lehen saria, bigarrena Natxo Millán bergararrak, Agustín Gurrutxagak hirugarrena lortu du eta herriko onena Benito Canterok.



Miren Leturia koloretako kategorian herriko onena izan da goiko argazkiari esker.

Epaimahaiak aurkeztutako lanen kalitatea goraiatu du eta nahiz eta iaz baino 5 partaide gutxiago izan lan benetan interesgarriak aurkeztu dira. Sari banaketa datorren uztailearen 8an arratsaldeko 7etan Kultur Etxean egingo da. Kategoría bakoitzeko lehen

hirurek 20.000, 15.000 eta 10.000 pezetako sariak eta Tere Guenetxearen eskultura bana eramango dituzte. Herriko onenek ere 10.000 pezeta eta eskultura jasoko dute hurrengo larunbateko sari banaketan.

Bestalde, Pol-Pol Argazki Taldeko kideek

hainbat sari lortu dituzte inguruko zenbait argazki lehiaketatan. Horrela, Ermuko Argazki Rallyan lehen hiru postuetan Agustín Gurrutxaga, José Luis Feo eta Benito Cantero sailkatu dira; Arrasatekoan Natxo Millánek lehen saria eta Hilario Azkar-gortak hirugarrena eraman dituzte eta Zumaiaiko Argazki Lehiaketan Benito Cantero izan da irabazlea. Azkenik, Debako Argazki Lehiaketan Juan Tabares nagusitu da. Zorionak guztiei.

**Bergararrek eraman
dituzte sari nagusi
gehienak**

KONDE



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

Udalari galdezka

Aspaldi irakurri genuen BERRIGARRAn Udalak zabor biltegi berria jarri zuela martxan Angiozarko bidean, zabor mota ezberdinak (papera, zura, plastikoa...) bereizirik bildu eta berziklatzeko asmoz. Honez gero, biltegi honetara eramán daitezkeen hondakin motak bereizirik biltzen eta biltegitara eramaten ari gara etxean eta, egia esan, ez da lan erraza: bakoitza bere aldetik biltzen joateko toki arazoak ditugu, bildu ondoren autora jaitsi behar dira eta biltegitara autoz joan han zaborrak uzteko...

Erabilitako materialak berziklatzearen aldekoak garelako egiten dugu lan hori guztia. Baina han bildutako zenbait zabor mota ez dela berziklatzen esan digute, plastikoa esate baterako. Eta horixe da, hain zuzen ere, gure etxean (eta gehienetan, ziur aski) ugariaren sortzen den hondakina.

Berziklatzearen izenean hartu dugun lana egitea merezi ote duen galdezka hasiak gara geure buruari eta horretxegatik zuzendu nahi dizkiot gure galderak Udalari: zer egiten da, zehatz-mehatz, Angiozarko bidean kokatu den zabor biltegitara eramaten den zabor mota bakoitzarekin? Merezi ote du egiten ari garen lanak? Eta hala bada, noizko izango ditugu plastikoa

(bereziki) edo bestelako hondakinak jasotzeko ontziak gure kaleetan?

M.A. NAN: 15.370.058

"Ez gaude oso gustora" esatea zurikeria da

Pasa berri den Udal hauteskunde-etako kanpainen zehar EA behin eta berriz aritu zaigu mezu bera kalera-tzen: Udaletxeko aginte organuetan, hauteskundeetan ordezkaritza lortutako alderdi guztiek egon behar dutela, hain zuzen ere.

Hauteskunde kanpaina amaitu da eta Udal Gobernua eratzeko ordua heldu da. Momentu honetan, EA bere mezu guztia alboratuta hiruko famatuan sartu da, Victorianori nahi duena egiteko boterea emanaz. Oso ondo zekiten EAko kideek Victorianori botoa ematean HBren eta, beraz, gutxienez 2.861 bergararren ahotsa eta iritzia Udaletik kanpo uzten laguntzen ziotela.

Hasi berri den legegaldian EAren esku zegoen hau ez gertatzea, kanpogan gelditu izan balitz, oposizioak gobernuak baino indar eta ahalmen gehiago izango bailuke eta honelako jokatibideak ebitatzeko aukera edukiko baikenuke.

Baina Hirigintza batzordeak eta Gobernu Batzordean boto bat edukitzeak merezi zuen honelako ekintza guztiz antidemokratikoan kolaboratzea. Kontzientzia trankil ez daukate-lako edo orain zurikerien ordua heldu da eta honetarako, "Ez gaude oso gustora HB ez dagoelako Gobernu Batzordean" esan eta kitto.

Zuek izan zarete hori ahalbideratu duzuenak eta orain eutsi egindakorari eta ez etorri lamentazioekin. PNVk hori egingo zuela bazenekiten eta hala ere zuen laguntza eman diozue. Izan da Euskal Herrian zuek baino auzardia gehiago erakutsi duen EAKide-rik. Bueno, on dagizuela poltronak eta noizean behin gogoratu aurreko legegaldian pasatu zenituztenak, oraingogan ere badago horrela dagoen jendea ere.

BERGARAKO HB

Tiira biraka

GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



◆ **Liburutegiko ordutegia**

Kultur Etxeko Udal Liburutegia goizez bakarrik izango da zabalik datorren astetik aurrera, astelehenetik ostiralera 8etatik ordubatera (larunbatetan itxi egingo da). Era berean abuztuko lehen eta azken bi astetan goizetik ordutegi berarekin zabalduko da.

◆ **Justo Garate beka**

Udalak Justo Garate bekaren 1995eko deialdia egin du. Aurtengo beka (935.000 pezeta) soziologiari zuzenduta dago, ikerketa lana euskaraz burutu beharko da eta norbanakoek zein horretarako osatutako taldeek eskuratu ahal izango dute. Eskeraer aurkezteko epea irailaren 1etik 30era bitartean izango da zabalik. Eskabideak eta gainontzeko agiriak honako helbidera bidaliko dira: Bergarako Udala, Udal Kultur Zerbitzuen Batzordea, Erreferentzia: Justo Garate Arriola beka, San Martin Agirre Plaza 1, 20570 Bergara.

JAIOTAKOAK

Andrea de Jesús Borges Neves
Ekainak 9

HILDAKOAK

Juan Arenaza Iñarra
Ekainak 22, 89 urte
Mirari Umerez
Ekainak 23, 28 urte
Begoña Sánchez Molinero
Ekainak 26, 34 urte
Ruben Conde Sánchez
Ekainak 26, 8 urte

Milaka bergarar bilduko dira domekan San Martzialen

San Martzial jaiak ospatuko dira astebukaera honetan Bergaran. Gaur ostirala, San Martzial eguna, hainbat ekitaldi izatekoak ziren egunean zehar eta gaueko 10 t'erdietan Orfeoi Gazteak eta Bergarako Orfeoiak kontzertua eskeiniko dute Santa Marina elizan.

Bihar larunbata, 4retatik aurrera Denontzako III. Kirol Jaia jokatuiko da Kiroldegian, 7etan Udal Txistulari Bandak eta Kobok dultzainero taldeak lagundutako buruhandi eta erraldioen kalejira izango da, ondoren bonba japoniarrak, 8etan Kalyna dantzari ukraniarren emanaldia Miguel Altuna Institutu berrian eta gaueko 11etan erromeria Plazan Maixa eta Itziaren eskutik.

Urtero bezala, uztaileko lehen igandean ber-



Gurdiaren igoera goizeko 10etarako iragarri da.

garar guztiek San Martzialen ezinbesteko zita izango dute, bertan elkarrekin egun alaitsua igarotzeko asmoz.

Aurreko urteetan bezala, giroa sekulakoa izango da eta dagoeneko koadrila gehienek bazkaltzeko mahaiak San Martzialeko zelaietan jarri dituzte. Bilduko den

jendetzaren adierazle bezala, Udalak 157 mahai alokatu ditu eta izan dira atendidu ezin izan diren eskaera gehiago.

Programari dagokionez, nobedaderik nagusia aurten ez dela herri kirol probarik jokatu izango da. Horren orde, haurrentzako jokuak iragarri dira.



■ **Txikizioak San Martzialen**

San Martzialen jarrita zeuden hainbat mahai txikituta aurkitu zituzten udal langileek asteazken goizean. Kuadrilek igandeko erromeriarako jarrita zituzten 26 mahai agertu ziren apurtuta, horietako batzuk guztiz txikituta eta beste batzuk lurretik atera eta hankaz gora lagata. Txikizioa astearte gauean gertatu zen, egun berean hainbat herritar iluntzera arte ibili baitzen mahaiak jartzen. Udalak "ganberrada" hau salatu du.

IGANDERAKO EGITARAUA

- 09.15:** Lizarrako dultzaineroekin, Xafre eta Zaharra trikitilariekin eta Udal Txistulari Bandarekin alborada.
- 10.00:** Gurdi igoera.
- 11.00:** Meza Nagusia.
- 12.15:** Xamatzen emanaldia.
- 12.30:** Ohizko aureskua.
- 13.00:** Narbaiza eta Egileor.
- 13.30:** Abesti herrikoiak.
- 17.30:** Haurrentzako jokuak.
- 16.30:** Aranzabal Orkestarekin erromeria.
- 21.00:** Jeitsiera.
- 22.30:** Txistulari, dultzainero eta trikitilariekin erromeria.
- KANTINA** Lokatza eta Ariznoa Ballet taldeari adjudikatu zaie.

◆ Haran Biziaren

ibilaldia

Bihar larunbata, uztailak 1, Aitzorrotz aldera mendi ibilaldia aterako da goizeko 9.30etan Eskoriatzako plazatik. Haran Bizia plataformak antolatutako martxa honetan Maltzagà-Urbina autopistak Deba Garaian izango duen eragina aztertuko da. Haran Biziak bailararen kontserbazioan interesaturiko pertsona guztiei parte hartzeko deia zabaltzen die. Ibilaldia 3 ordu ingurukoa izango da eta ogitartekoa eta edariak eramatea eskatzen da.

◆ Auzolandegiak

Arrasateko AED Elkarteak 18 urtetik gorakoei zuzendutako auzolandegiak antolatu ditu Kanbon-Lapurdin (uztailaren 3tik 16ra), Baigorriin-Behenafarroan (uztailaren 16tik 30era) eta Garaion-Araban (abuztuaren 16tik 30era). Goizez lana egingo litzateke eta arratsaldean Iparralde eta bertako kultura ezagutzeko aukera izango da. Izen-ematea eta argibideak 77 12 28 telefono zenbakian.

◆ Akanpada Karakaten

Karakate Bizirik plataformak Karakaten egin nahi den Ertzaintzaren antenaren kontrako akanpada antolatu du gaurtik igandera bitartean. Gaur arratsaldeko 6etan aterako da martxa Sorluzetik eta Elgoibarretik (motxilak furgonetan igoko dira), 10etan afaria egingo da, 11.30etan antzerkia eta ondoren txalaparta eta Sorgin Haize taldearen kontzertua. Larunbatean 10.30etan Irukeruzetara martxa, 12etan salda eta txorizoa trikitilariekin, 3retan bazkaria eta txiste kontaketa, 7etan antenari buruzko txarla, 9etan afaria, kontzertua jarraian eta 12etan Sorgin Bila jokua. Igandean, 11etan salda eta txorizoa, bazkalostean musika sintetikoa eta ingurua garbitu ondoren, jeitsiera. Astebukaera osoan zehar txozna jarriko da.



HBko zinegotziek eskerrak eman zizkien eurongan konfidantza jarri duten herritarrei.

HBk Udal demokratikoa eta partehartzailea aldarrikatu du

Udalean aurkeztu duen mozioaren berri eman du

Hauteskunde ondorengo balorazioa egin, gaur egungo egoerari errepaso eman eta etorkizunera begira HBk dituen asmoak herriari jakinarazteko prentsaurrekoa eman zuten HBko zinegotziek asteartean.

Datozen lau urteei begira Udala eta kalea hurbildu nahi dituztela adierazi zuten, *"herriak jakin dezan zer gertatzen den Udalean"*. Hori aurrera atera ahal izateko mozio bat aurkeztu du HBk Udalean. *"Udal demokratiko eta partehartzaile bat izateko ze oinarrizko irizpide izan behar diren Udalaren eraketan eta funtzionamenduan azaldu nahi dugu"* esan zuten. HBk herriko talde ezberdinekin bilerak egingo ditu mozioan jasotzen diren puntuak azaltzeko.

Mozioan jasotzen denaren arabera, talde politikoen guztiek hartu behar dute parte Udala gobernuan. Bestalde, Plenoak hilean behin egin beharko dira eta Plenoa egin baino bost egun lehenago, gutxienez, bertara aurkeztu behar diren gaiak buruzko informazioa eskura egon beharko da. Plenoko gairen batean inplikaturik dauden kolektibo edo herritarrek gai horretan hitzegiteko aukera izango dute. Plenoko gai

guztiak eztabaidatu ahal izango dira. Informazio batzorde irekiak sortuko dira, bertan zinegotziek eta herritarren kolektiboek esku hartzeko. Proposamenak esplikatu eta jasotzeko, sektore eta herrialdeko batzarrak egingo dira. Udal informazio guztia ahalik eta epe laburrenean eskuratzeko erraztasunak emateko bideak eraikiko dira. Herritarren fondoa sortuko da, herritarrek egiten dituzten txosten, ikerketa tekniko, azterketa e.a.ak, beharrezkoak direnean, bertatik ordaintzeko. Azkenik, herritarrek Udalean parte hartzeko, zinegotzi eta alkatearekin zuzeneko harremanetarako batzorde informatiboa sortzea eskatzen du HBk. Halaber, sektore nahiz herrialdeko maiztasun batekin batzarrak egin eta Erreferendurak eta herri kontsultak bultzatu.

Bestalde, tripartitua osatzen duten partiduen eta bereziki EAren jokabidea salatu zuten: *"Elkarrengana hurbiltzen saiatu gara, baina horren erantzuna ezezkoa izanda, ez digute erantzun ere egin. EAk, bestalde, kanpaina guztian zehar beste gauza bat esan eta gero, azkenean amore eman du eta besteekin berdinduta jokatu du"*.

Dolumina Begoña Sánchez eta Ruben Conderen heriotzengatik

Kotxe istripuan hil ziren igande gauean Osintxun

Begoña Sánchez eta Ruben Conde bere semea igande gauean Osintxun gertatutako kotxe istripu batean hil ziren. Ertzaintzak jakin arazi duenez, ordubata laurden gutxiagotan, Osintxuko bariantean, Jose Conde bergararrak gidatzen zuen Volkswagen Golf kotxeak eta Elgoibarko J.A.C. 24 urteko gaztearen Opel Astra kotxeak elkarren kontra txoke egin zuten eta, horren ondorioz, Begoña Sanchez eta Ruben Conde, Jose Conderen emaztea eta semea, hil egin ziren. Jose Conde zauritua gertatu zen eta Mendaroko eritexean ingresatu zuten. Begoña eta Ruben, berriz, hilik zeuden Gurutze Goriak eta DYAk Mendaro eta Arrasateko eritexetara eraman zituztenerako.

J.A.C beste kotxeak gidariak zauri arinak jasan zituen eta Ertzaintzak atxilotu egin zuen trafikoaren segurantzaren kontrako delitu

baten akusaziopean. J.A.C.k positibo eman zuen alkoholemia kontrolean eta alta medikoa jasotzen duenean Bergarako Epaitegiaren ardurapean jarriko du Ertzaintzak.

Begoña eta Rubenen aldeko hileta elizkizunak astearte arratsaldetan egin ziren Santa Marina elizan. Oihartzun haundia izan du Bergaran Begoña eta Rubenen heriotzak. Jose Conde oso ezaguna da herrian San Lorentzoko Lakota burdinakidendaren jabeetako bat baita.



Egoera honetan geratu ziren bi autoak istripuaren ostean.

◆ Jai Batzordearen salaketa


Udaleko Jai Batzordeak salatu duenez, "San Martzialgo kanpan jarrita zeuden mabaiak apurtu eta hondatu egin ditu 27tik 28rako gauan ganberro kuadrilaren batek. Hau egiten gozatu badute, esan nahi diegu bergarar guztiei eragin diela kaltea, elkarrekin jaigiroan egun pasa egin obi den egun honetan. Mabaiak jarrita dutenek begiratu egin beharko dute iganderako prestatzeko".

◆ San Martzialgo jeitsiera

Jai Batzordeak bergarrei eskatu nahi die San Martzialgo jeitsieran urik ez botatzeko eta lagunartean egiteko jeitsiera. Bestela soinu tresnak eta busti hondatu egiten dira.

◆ Kalyna ukraniarrek San Martzialen

Larunbatean 8etan Miguel Altuna Institutu berrian emanaldia eskeiniko duten Kalyna taldeko dantzari ukraniarrek igandean San Martzialen izango dira. Bestalde, elkartruke baten bitartez, Xamatzek eta Aritzetak hurrengo urteko udan Ukrania joateko gonbidapena jaso dute.



Matxiategi
Elektragintza
C.B.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Fleming Doktoorea, 5
☎ 76 19 94

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

Pepelu

Ilepaindegia

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

• PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA.
• LOGOPEDIA, LOGOFONIATRIA:

AHOTS, HIZKETA ETA LENGOAIA
ZAILTASUNEN BIRGAITZEA ETA LARINGEA
KENDUTAKOEN BIRGAITZEA.

CEDICO, Koop. Elkarte
Herri Lagunak, 1 behe (Seminarioko patiotik sarrera) ☎ 76 14 80
Koordinatzailea: Jose Luis Irazabal



ESKUALDEKO
ZENTRUA
BERGARA

Udako kontzertua

Bergarako Orfeoia Santa Marinan gaur 22.30etan


Gogor jardun du urte hasieratik Bergarako Orfeoia Udako kontzertua prestatzen. Azkenik, gaur, ostirala, gaueko 10.30etan Santa Marina elizan esfortzu horrek eman duen fruitua dastatzeko aukera izango dugu. Aurretik, Aintzane Aranak zuzentzen duen Orfeoia Gazteak lau konpositoreren lanak eskainiko ditu. Martin Etxaniz eta David Azurzarekin, Orfeoiko presidente eta zuzendariarekin hitz egin dugu.

- Zer eskainiko du Orfeoia Udako kontzertuan?

- Urte hasieratik hona egin dugun lana herriari azaldu eta ikasturteari amaiera emango diogu kontzertu honen bitartez. Koruan lan berriak landu eta aurrerapausuak emateko ahaleginetan, Schubert eta Rutter-en bi obra handi aukeratu ditugu.

- Orfeoia Gazteak ere arituko da...

- Bai, 13 eta 18 urte bitarteko 50 bat gazte osatuta dago eta Orfeoiko harrobi izateko sortu zen. Gaztetatik abesten erakutsi eta orfeoia nagusira heltzen direnerako koru baten disziplina zein den jakin dezatela da asmoa. Batzuk iaz pasatu ziren koru nagusira eta pixkanaka-pixkanaka berriak sartuko dira. Ostiraleko kontzertuan lau pieza eskainiko dituzte, Monika Arriaran solista



David Azurza eta Martin Etxaniz, Orfeoiko zuzendari eta presidentea.

arrituko da eta Raquel Carpinterok pianoz lagunduko die.

- Eta Bergarako Orfeoia eskainiko dituen bi lanak?

- Alde batetik, Schu-

mara talde baten laguntza izango dugu, organo, cello, oboe, klarinete, flauta, tronpa, teklatu eta perkusioz osatutako taldea. Musika Eskolako irakasle, Orkestako kide eta

"Eskainiko ditugun obrek lan asko eman digute baina jendeak gustora entzungo ditu"

bert-en Meza. Orfeoiek landu dezaketen obra klasikoen artean koka dezakegu, errepertorio erromantikoa izan arren. Bestalde, Rutter-en Requema. Obra modernoa da, lan asko eman diguna eta jendeak gustora entzuteko modukoa, oso erraz sartzen dena. Ka-

beste herri batzuetako musikoz osatutakoa. Bestalde, Schubert-en Meza hiru solista izango dugu: Luis Ignacio Ruiz de Alegria, Arrasateko Goikobaluko zuzendaria; Iago-ba Fabrique, Donostiako Orfeoiko eta Madrileko Komunitateko Koruko kidea, eta Marije Ugalde

Begarako Orfeoikoa.

- Herritarrek gustora entzuteko errepertorioa beraz...

- Bai, Rutter-en Requema, esate baterako, sorpresa izango da jendearentzat. ETBn eman dute eta ikusi dutenei asko gustatu zaie, hasieratik engantxatzen duen lana da. Rutter Cambridgeko koruko zuzendaria da eta, beraz, ondo ezagutzen ditu abesbatzak. Oso melodia politak lantzen ditu eta gauza konplikatua izan arren, hau da abesbatzek asko landu beharreko obrak izan arren, entzuleak erraz asimilatzen ditu.

- Etorkizunerako dituzuen asmoak kontatu ditzakezue?

- Bai, aurten Orfeoia sortu zeneko 50. urteurrena betetzen da eta

Udako kontzerturako landu ditugun obra hauekin urteurreneko ospakizunei hasiera emango diegu. Bestalde, obra hauek beste herri batzuetan ere eskaini nahi ditugu eta honela, irailaren 30ean, esate baterako, Donostiako Victoria Eugenia izango gara.

Osasuna

Gerontologia psikosoziala

- Zer da Gerontologia Psikosoziala?

- Geriatria zahartzaroko transtornoen ezagutza eta tratamendua aztertzen duten medikuntzaren adar bat da eta gerontologia, berriz, zahartzaroiari dagokion guztia aztertzen duen zientzia litzateke. Zaharren mundua alderdi psikologiko, pertsonal edota sozialetik aztertzen saiatzen da. Zoratasuna eta depresioa, adibidez, ikuspegi zabalago batetik aztertu behar dira, ingurukoekiko ondorioak eta ondorio psikologikoak kontutan hartuz.

- Zeintzuk dira zahartzaroko arazo nagusiak?

- Gizartean laguntza sozialaren problematika dago, izan ere gaur egun gaztaroarekin zerikusia duten elementuak (azkartasuna, aldaketak) zahartzarokoak (esperientzia adibidez) baino gehiago baloratzen dira. Bestalde, zahartzea atzeratzea lortu dugu (gaur egun 65 urteko jendea ez da zaharra) eta erronka nagusia urte

horiei "bizitza ematea" litzateke.

- Nola lortu daiteke hori?

- Ekonomia (gaurko pentsio baxuak bizitza kalitate on baterako oztopo dira), osasuna (zoratasuna eta transtornoen agerpenari aurrea hartuz) eta giza harremanetan egin behar dugu lan. Giza



FCO. JAVIER LETURIA
(UNEDeko irakaslea)

harremanetan laguntza sozialeko sareak sortzen ahalegindu behar gara: familia, boluntarioen organizazioak, jubilatuen elkarteak, autolaguntza taldeak..., azken batean guztiok (eta zaharrek bereziki) behar dugun laguntza sozial hori eman

"Ekonomia, bakardadea eta osasun falta dira zahartzaroko arazo nagusiak"



Gaur egungo bizi iraupena luzeagoari bizitza ematea da erronka.

ahal izateko beharrezkoak direnak.

Osasun funtzioek (analizatzeko eta adi egoteko ahalmena), alderdi psikoafektiboak (nola bizi eta nola sentitzen ditugun gauzak depresioa eta antsietatea ez agertzeko) eta osasun fisikoak (arazo horien agerpenaren prebentzioa) lehentasuna daukate.

- Prebentzioa nola egin daiteke?

- Heriotz arrazoietak asko portaerak baldintzatzen ditu: kotxe istripuek, biriki minbiziak, bihotzeko transtornoek... Jokaera horiek psikologia edota gerontologia psikosozialetik tratatu daitezke, jokaera aldaketa eta beste teknika batzuen bitartez. Farmakoekin batera bizitza kalitatea hobetu dezakegu.

- Familiak zein paper jokatzen du?

- Familiei gaixo zaharrrak zaintzea exijitu zaie betidanik baina ez zaizkie lan hori ondo egiteko beharrezkoak diren erreturtoak erreztu.

Zoratasunak adibidez zaintzailearekiko ondorio psikologikoak eta sanitarioak izan ditzake eta burugabeen jokaera arazoak tratatzeko teknikak erakutsi behar zaizkie.

Bizitza kalitatea hobetu behar dugu, oraindik ez baikara ongizate estatua izatera iritsi.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Agustin Aranzabal

Agustin Aranzabalek nekez ahaztuko du amaitu berri duen denboraldia. Realaren hasierako hamaikakoetan ikusi ahal izan dugu igandero eta Toshack zein Iriarteren konfidantza osoa izan du. Clementek ere Espainiako selekziorako deitu du eta kirol kazetariak egin duen lana azpimarratu dute. Realeko onenatarikoa izan da talde nagusian burutu duen lehen denboraldian.

Sinisten al duzu egin duzun denboraldia?

- Lehenengoa izateko dena borobil irten da. Esperantza nuen partiduak jokatzeko, baina ez hainbeste. Gero selekzioarena etorri da eta hori gehiegi

izan da.

- Datorren urterako ze asmo dituzu?

- Aurten egindakoa hobetu. Halere orain jendeak hobeto ezagutzen nau eta gehiago eskatuko didate.

- Asko kostatu zaizu

kategoria berrira moldatzea?

- 15-20 partidu jokatzeko helburua nuen eta 33 jokatu ditut...

- Kategoria berrira moldatzeko gehien kostatu zaizuna?

- Erritmoa hartzea izan da zailena. Baina batzutan errezago izaten da lehen mailan jokatzeko. Gehiago lagatzen dizute jokatzeko, markaketak ez baitira hain gogorrak. Askotan errezagoa da Real Madriden aurka jokatzeko, Racing edo bere antzeko taldeen aurka jokatzeko baino. Halere, zaletuen edota kazetarien presioa haundiagoa da.

- Jokatzeko postuan gustora zaude ala aurrerago jokatzeko nahiko zenuke?

- Nahiago dut atzean jokatu, futbol zelai osoa ikusten delako. Aurrerago jokatzeko banu porteriari begira egon beharko nintzateke eta gero buelta ematea oso zaila da.

- Prentsan kanpoko erregatea hobetu behar duzula jaso da. Zer diozu horri?

- Egia da normalean erregatea barrurantz egiten dudala, baina irtetzen bada... Bestalde, buruarekin eta eskumako hankarekin hobetu behar

dut. Halere defentsan asko hobetu dudala esan dit entrenadoreak.

- Aurten taldea kasik samar ibili da, oso irregularrak izan zarete.


- Oso gaizki hasi ginen eta zaila izan zaigu zuloak irtezea. Gainera entrenatzaile aldaketa izan genuen, baina berriekin erakutsi dugu taldea badagoela.

- Hala ere hasieran jendeak Iriarterengan ez zuen asko sinesten?

- Bai, baina ligako azkenengo zatian oso partidu onak egin ditugu eta jarraitzea merezi izan du.

- Ze diferentzia dago Toshacken eta Iriarteren artean?

- Iriarterekin jendea lasaia ibili da, gehiago hitzegiten dugu. Toshack gogorragoa da eta berarentzat txarra bazara baztertu egiten zaitu.



"Karpin da Realeko jokalaririk onena. Kalitate handia du".

"Rea

- Daukazuen taldearekin lortutako postuarekin konforme zaude ala gehiago egin al zenezaketela uste duzu?

- 8. postutik 10. enera gelditzearekin nahiko dela uste dut.

- Iriartek esan du datorren urtean bere helburua UEFArako sailkatzea dela.

- Aurten lehen urtea izateko gazte jendea nahiko ondo ibili da eta datorren urtea bigarrena izanda hobeto ibiliko gara uste dut. Bestalde, bi atzerritarrekin ibili gara eta datorren urtean hiru baditugu eta fitxaketekin asmatzen badute aukerak izan ditzakegu.

- Ezagutzen al duzu Acheampong?

- Ez, gu ere egunkarietatik enteratu gara.

- Ze postu hobetu behar da taldean?

- Kodroren ordezkoarekin asmatzen badute talde konpentsatua izango dugu.

- Etxeberria gai izango litzateke Kodroren hutsunea betetzeko?

- Oraindik gazteegia da, baina ahalmena badu eta bi edo hiru urte barru Realeko golegilea izan daiteke.

- Espainiako Ligako zein aurrelari atzerritar fitxatuko zenuke?

- Penev ekarriko nu-



**arekin liga txapelketa
tzea da nire ametsa"**

ke. Salenko? ez zait asko gustatzen.

- **Ze giro duzue aldagelatan?**

- Oso ona. Hala ere Biurrun eta Alaba ez dira datorren urtean izango eta pena bat da, oso ka-txondoak dira eta. Biurrunek 35 urte ditu eta beti umeen moduan txantxetan ari da. Alaba, berriz, beti txisteak kontatzen ibiltzen da. Oso jatorrak dira biak.

- **Zein da zuretzat Realeko jokalaririk onena?**

- Karpin. Oso kalitate handia du, gola sartzea falta zaion arren.

- **Kodrok funtzionatuko al du Bartzelonan?**

- Uste dut baietz. Entrenamenduetan baloi guztiak barrura sartzen zituen. Halere Realean baloi guztiak berarentzat ziren eta Bartzelonan gogleile asko daude.

- **Noiz lortuko du Realak Liga berri bat?**

- Taldea mantentzen bada, hemendik 3 urtera.

- **Ordura arte iraungo al duzu Realean?**

- Hori ezin dezaket esan, norbait badator eta diru asko eskaintzen badu...

- **Kasu horietan aitaren aholkuak garrantzitsuak izango dira...**

- Oso garrantzitsua da aitaren laguntza. Deportiboren aurka debutatu nuen eta 5-1 galdu genuen, gero Sansera bueltatu nintzen, oso gaizki pasatu nuen. Ez nekien balio nuen ala ez. Aitak asko lagundu zidan momentu txar horietan.

- **Zer sentitzen da aldagela berean Hierro, Luis Enrique, Guerrero ala Zubi dituzunean?**

- Hierro niretzat ligako

"Anoetako publikoa hotza da, atsedenaldira hutsna joanez gero txistuak entzuten dira"

jokalaririk onena da eta selekzioan bere taldeki-dea izatea oso polita da. Bazkaltzen Hierro, Salinas eta Amaviscarekin izan nintzen eta oso ondo portatu ziren nirekin.

- **Zer moduz Zubizarretarekin?**

- Oso ondo, kontentrazio osoan zehar euskaraz hitz egin genuen elkarrekin.

- **Ligako ze jokalarik eman dizu lan gehien?**

- Valentzian partidu oso txarra jokatu genuen

eta Mijatovicekin arazo asko izan nituen. Caminorekin ere larri ibili nintzen Madrilén.

- **Noizko sartuko duzu lehen gola?**

- Atzean jokatzen dut eta zaila da golak sartzea. Bartzelonako jokaldi harretan sartu izan banu...

- **Zer sentitzen da Nou Campen jokatzeko?**

- Berotze ariketak egitera irten ginenean horrelako jende pila ikus-teak asko harritu nindu-

en. Bestalde, afiziorik beroenak, Atletico de Madrid, Sevilla eta Betisekoak izan dira.

- **Eta Anoetakoa?**

- 2-0 irabazten bazoaz oso ondo portatzen da zalegoa, tanborrada, txaloak... Baina atsedenaldira hutsna bazoaz jendea urduri jartzen da eta txistuak entzuten dira. Publiko hotza da.

- **Jokalarien artean izaten al duzue bronkarik?**

- Ez asko, Loren da bronka gehien botatzen dituen.

- **Norekin konpartitzen duzu gela?**

- Karpinekin. Hasieratik hasi ginen hizketan eta esan zion entrenatzaileari nirekin egon nahi zuela. Oso jatorra da.

- **Hor daude Realean Bergarako Berraondo, Andueza, Santiago zer esango zenieke?**

- Adin horietan futbola oso sakrifikatua da. Donostiara joatea ez da erraza eta lagunak kalean dabiltzan bitartean zu zaindu egin behar zara. Edade horrekin zaila da baina...

- **El Pais egunkarian Angel Cappa eta Victor Fernandezek Ligako errebelazioa zarela adierazi dute. Zer deritzozu horri buruz?**

- Hori esan zidatenean poz handia hartu nuen, baina nire ustez Ligako errebelazioa Amavisca izan da. Baina garrantzitsua da horrelako bi en-



"Biurrun eta Alabak taldea uztea pena bat da, oso jatorrak baitira".



Aranzabalek Clementeren selekzioarekin debutatu zuen Armeniaren kontrako partiduan. Julen Guerrero Athletic-eko izarrarekin batera izan zen kontzentrazioan. ARGAZKIA: DON BALON.

HAUEI BURUZ ZER?

CLEMENTE

Pertsonalitate handiko gizona. Seleksioan berak agintzen du.

GUERRERO

Jokalari gaztea eta crack bat.

KODRO

Sekulako golegilea.

PATXI ALONSO

Profesional ona, baina "bilbainoa".

ALKIZA

Pertsona eta jokalaria ona.

LUIS GARCIA

Gaizki irtendako fitxajea.

AMAVISCA

Aurtengo jokalaria errebelazioa.

BUTRAGUEÑO

Bere denboran jokalaririk onenetarikoa.

ATOTXA

Urte askotan Realarentzako zelairik onena. Zaletuak gain-gainean izaten zituzten jokalariek.

ANOETA

Zelai ona, baina jokalariontzat hotzagoa.

trenatzailek hori esatea.

- Zer egiten duzue aisialdian. Juergarik egiten al duzue?

- Normalean ez asko, baina domeka gauetan egiten dugu parrandatxo-ren bat.

- Diskoteka ezagun batean ikusi izan zaituzte.

- Bai, noizean behin edo joan izan naiz, De Pedro eta Idiakezekin batera.

- Kalean jendeak ezagutzen al zaitu?

- Bai. Batzuk ondo portatzen dira, baina beste batzuk oso astunak dira. Orain hurrengoan, Donostian etxean nengoengan haur batzuk beheko tinbrea jo zidaten autografoak eskatzen. Han igo ziren 10en bat haur eta etxe barrura sartu ziren autografo bila. Kartak ere bidaltzen dizkirate, baina Kodrori baino gutxiago...

- Zer eritzi duzu Aranzabal Lagunarteari buruz?

- Zure herriko lagunek horrelako gauza bat egitea oso garrantzitsua da eta ilusio handia egin dit.

- Gustatuko al litzazuke Euskadiko selekzioarekin jokatzea?

- Gustora jokatuko nuke!! Oraindik ez dago, baina gustora joango nintzateke noizean behin jokatzen diren partiduetara.

"Hiru urte barru Realean izango naizen? Norbaitek diru asko eskaintzen badu..."



PINTURAS BERGARA

PB

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • GARBIKETAK •
• APAINKETARAKO PINTURAK • ERROTULOAK • etab...


Aranerreka, 32 behea. BERGARA.
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

San Martzialeko erromerian parte hartzeko ohiturarik badaukazu?




María Riera
47 urte, etxeoandrea

Orain dela asko ez naizela joan, lehengo giroa gehiago gustatzen zitzaidan. Ondo dago baina batez ere nagikeriagatik ez naiz San Martzialera igotzen.




Jaime Rodríguez
59 urte, jubilatua

Batzuetan joan izan gara, bai, egun guztirako. Neri asko gustatzen zait jai hori baina semeek oraindik gogo gehiago izaten dute.



Markel Gómez
8 urte, ikaslea

Bai, lagunekin jolastuz primeran pasatzen dut. Egun osoa han pasatzen dugu eta jeitsiera jendearekin egiten dugu.




Mari Zubiate
52 urte, langilea

Auzokoa naiz eta sekulako giroa izaten da. Baina zelan bazkaltzeko apopiloak izaten ditudan, danetara ezin ailegau...



Itxaso Basauri
14 urte, ikaslea

Bai, goiz joaten gara eta ondo pasatzen dugu lagunartean. Gehien bukaera, jeitsiera gustatzen zait.



Iñigo Igarza
17 urte, ikaslea


Bai, mahaia alokatu eta bazkaria erreserbatu dugu dagoeneko eta igandean juergatxo bat egingo dugu. Jeitsiera jendearekin egiten dugu normalean.

ONENA
TINTATEGIA
Barrenkale, 29 BERGARA

 **zumelaga**
JATETXEA
IGANDETAN ZABALIK!!
San Antonio, 5 BERGARA
☎ 76 20 21

 **ETXEBERRIA**
ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA
Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lentzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.
Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69



Ezkerroneko otoitzaldia

Behin eta berriz entzun dugu Jainkoa maitasuna dela eta maitasun huts guretzat. Jainkoa salbamen da eta salbamen huts. Jainkoak den dena ematen digu. Gurutzeko Juan Santuak honela dio: "Bere semea ematean, dena ematen digu, dena esan digu, eta ez du ezer gehiagorik guri esateko".

Jainkoak ez du gure zoriona besterik nahi. Jainkoak ez du gure ona besterik nahi. Baina gaitzaren aurrean zer? Gaitza bera ere ez dago hor berak nahi duelako, gure izakerari dagokion zerbait delako baizik. Mehatxu egiten eta erasotzen gaituen gaitzaren aurka, Jainkoa beti gure aldeko dugu. Jainkoa beti maitatzen ari den maitasuna da. Jainkoaren irudi honen aurrean nolako otoitza, nolako jarrera eduki behar dugu?

Gure otoitza-gure jarrera, "harrera on egiten edo eskerak ematen" aritzea da. Zoriontsu nahi gaituen Jainko horri "harrera on egin eta fidatu": edozer gertatzen zaigula ere, Jainkoa beti gu maitatzen ari da, Jainkoak ez du pentsatzen gugan ezik.

Ikasturtea amaitzerakoan gure Elizbarrutiko Gotzaiak berarekin bat eginda San Pedro eta San Pablo egunean Katedralean "esker onezko otoitzaldira" konbidatzen gaitu. BERRIGARA zuregana, irakurle, iristerakoan San Pedro eguna eta San Martzialeko letaniak pasatuta egon arren, larunbat-igande, bai San Martzialen, bai Parrokietan, eskerronez eta konfidantzaz betetako otoitza zuzendu diezaigula Jainko on horri.

Ondo pasa San Pedro eta San Martzialak.

Xabier ZUBIZARRETA



Sarajevo berriro

Nazioarteko iritzi publikoaren informazioa saturatzera iritsi da Bosniako gerra, inor ez baita sumintzen hilketa bat gehiago edo gutxiago izanda ere. Jarrera horrek eta serbioek errepresiorako duten diskrezioak ahazteratzen digute hor alboan daukagula Vietnam edo Afganistanen gertatutakoaren antzerako triskantza.

Misil batek Sarajevoko telebistaren egoitza erasotu eta kazetari, erreportari eta abenturazale atzerritar ugari zauritu behar izan dira nazioarteko komunitatea, eta "Estatu pentsalariek" bereziki, erasoaren kontrako mendekuekin mehatxu egin dezaten.

Canneseko gailurrak ondo baino hobeto erakutsi du nazioarteko hipokresia, serbioak aitortutako etsaiak izatetik istiluko alde bat izatera pasa baitira. Nazioarteko "higiene" jarrera horrek lehenengo erantzuna izan zuen pasa den asteazkenean zibilen kontra egindako bonbardaketarekin.

Badira aspalditik makina bat arrazoi presiobideak eta eskuhartzeko politika bat ere martxan jartzeko, baina berriz ere itxaron egin behar komunikabideek, gertatutako ankerkerien biktimak edota hedatzaile bihurturik, gaitzespen ahotsak jaso arte. Ahotsak besterik ez.

Ongi etorriak kazetarien arteko biktimak, serbioen probokazioei erantzuteko erabakia sortarazten badute.

Juan Antonio MIGURA

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA



DEBA

GARAIA

**INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA**

Arrasate / Bergara / Elgoibar
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

Sugoi

**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA



■ **Zaharren festa egunak**

Aste honetan zehar **Jubilatu**en elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu eta gure herritar zaharrek primeran pasatzeko aukera izan dute. Horrela, astelehenean jokatu eta toka txapelketa **Marcelino Gómezek** irabazi zuen eta bigarren eta hirugarren postuetan **Eugenio Osa** eta **Felix Uriarte** sailkatu ziren. Igel txapelketan, berriz, **Eugenio Díez** nagusitu zen eta jarraian **Jose Mari Uribetxeberria** eta **Genaro García** izan ziren. Asteartean **Mizpiruak** Egoitzan jaia antolatu zen eta **Jubilatu**en **abesbatzaren** emanaldiaz gain, **Kikioren** eta **Sagastume** soinujolearen (argazkian) sa

aparta izan zen. **Julian Aginagaldek** irabazi zuen bolo txapelketa **Carlos Zengor** tabengoa eta **Ignacio Plazaolaren** aurretik eta **Justi Larrañaga** izan genuen lehen emakumea. Asteazkenean bingoa eta trebetasunen erakusketa, atzo ostegun dantzaldia eta gaur, asteari amaiera emateko, **San Martzialera** igotzekoak ziren **San Martzialen** bertan bazkaria egiteko. Hori sasoa!!

■ **Ekologiaren aurkako erasoa**

Aurreko ostegunean **130 amorrain** (alebinak gehienak) hilik agertu ziren **San Juan errekan**, eper haztegia eta **Ubera** artean. 3. aldia da erreka kutsaduraren ondorioz amorrainak hilik agertzen direna. Badirudi kutsadura produktu toxiko baten eraginez izan zela eta **Oilagorra** elkarteko kideek ezin izan zuten produktu horren jatorria zehaztu, enpresako isurbideak eta ingurunea aztertu arren. **José Tejada** Oilagorrako kidearen ustetan, isurketa kantitate gutxikoa izan arren, bidean harrapatu zituen amorrain guztiak akabatu zituen eta hurrengo egunean afektatutako erreka zatian (100 m. ingurukoa) amorrainak bizirik aurki zitezkeen berriz. Ea ez den errepikatzen...



José Tejadak San Juan errekan hilik topatu zituen amorrain batzuk.

Simon Arrieta, 3

Gorka

OINETAKOEN KONPONKETA

Mota guztietako konponketak Bizkortasuna eta *garantia osoa*

ARTISAUTZAKO IZOZIA

GOXO-TOKI

D. Irala, 3 - Tlf. 761235
Matutelegi, 34 - Tlf. 762337
BERGARA

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29



■ **Goi mailako igerilariak**

Lan bikaina egin zuten Trenton (Italian) **Amaia Lazpiur**, **Eneritz Murguruza** eta **Antxon Maiztegi** (argazkian ezkerretik eskumara) Bergara Igeri Elkarteko igerilariak. 40 bat lagun ez osatutako Gipuzkoako selekzioarekin bigarren postuan sailkatu ziren astebukaeran Trenton

jokatutako txapelketan. Bertan italiarrak nagusitu ziren eta Alemaniako Charlottenburko taldeak hirugarren postua lortu zuen. Antxon Maiztegi osasun arazoak izan zituen eta ez zen Eneritz eta Amaia bezaian ondo ibili. Hala ere, bere maila erakusteko aukera berri bat izango du Antxonek hemendik gutxira selekzioarekin Malagan egingo duen *campus* batean. Ea ba!!

Zertan dihardute ba?



Mireia Gabilondo 30 urteko aktorea bergararra urteko antzerki aktore-aktorea onenen artean izendatu zuen Euskal Aktoreen Batasunak, asteazkenean Victoria Eugenia antzokian eginiko euskal aktoreen galan. Aktoreen Batasunak zine, telebista eta antzerki lanetan gehien nabarmendu diren aktore-aktoreak saritu nahi izan ditu eta antzerki sailean, Mireia Gabilondorekin ("Denak errudun" eta "Mephisto" lanengatik) batera, Aitor Mazo ("Mephisto") eta Kike Diaz de Rada ("Modigliani") izendatuak izan ziren. Azkenean Aitor Mazok eskuratu zuen interpretazio saria. Telebistan Kontxu Odriozola ("Goenkale") eta zinean Karra Elejalde ("La madre muerta") izan ziren irabazleak.

■ **Denontzako kirol jaia**



Bihar larunbata arratsaldeko 4retan Denontzako III. Kirol Jaia jokatuko da Kiroldegian. Bertan Deba Garaiko 70 bat elbarrituk hartuko dute parte (tarte-an Bergarako 12 lagun) eta golfa, hockeya, boccia, dantza aerobica, elbarri aulkiekin slalom probak eta saskibaloia, trebetasun zirkuitua... eta beste hainbat kirol proba jokatuko dira. Amaitzeko, berriz, 18.15etan opari banaketa eta merienda izango dira.

Siaska

Dena zure haurrarentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09

ZAPELAITZ


Taberna

Eguneko menuak
asteleheneetik ostiralera

San Lorenzo, 25 BERGARA

Luis Gabilondo

Luis Gabilondo (27 urte) Euskaldunon Egunkariako etxez etxeko banatzailea da Bergaran. Goizean goiz bizikleta hartu eta Egunkaria lehen orduan irakurleei eramatea da bere eguneroko lana.



"Egunero 15 bat Km. egiten ditut Egunkaria banatzeko. Aldapan gora? Defenditzen naiz. Gehien kirolak gustatzen zaizkit eta politika, berriz, ez dut jarraitzen. Tourra Miguelonek irabaziko du. Iganderako mahairik ez daukagu oraindik"

- Zein ordutan hasten zara lanean?
- 7 t'erdia inguruan.
- Zer gosaltzen duzu?
- Ordu horretan ezer ez. Amaitutakoan (handik ordubetera inguru), Cola-Cao bat gailatekin.
- Zenbat ordu lo?
- 6 edo 8 normalean.
- Eta zenbat Km. bizikletan?
- 15 egunero, Angiozar eta Soledaderaino joaten naiz eta.
- Aldapan gora zer moduz?
- Defenditzen naiz.
- Egunkaria noiz irakurtzen duzu?
- Errepartoa amaitu eta gero.
- Sailik gustokoena?
- Kirolak.
- Eta zein ez duzu irakurtzen?
- Politikeoa.
- Aldizkari bat?

- Ez ditut irakurtzen.
- **Hobby bat?**
- Kirolak eta animaliak.
- **Animalia bat?**
- Doberman txakurra.
- **Kirolik gustokoena?**
- Futbola praktikatzeko eta saskibaloia ikusteko.
- **Igerilekuak udan ala neguan?**
- Berdin zait, urte guztian joaten naiz eta.
- **Eta bizikleta?**
- Euria egiten ez duen bitartean...
- **Mendiko ala errepideko bizikleta?**
- Mendikoa nahiago.
- **Nork irabaziko du Tourra?**
- Miguelonek.
- **Porrarik egin duzu?**
- Lehen bai baina orain ez dut egiteko ohiturarik.
- **San Martzialetan zer egingo duzu?**
- Igo baina oraindik ez daukagu mahairik.
- **Astelehenean behintzat ez duzu lanik...**
- Neretako astelehena domeka bezala da, asteko egunik onena.
- **Oporretan nora?**
- Herrian geratuko naiz.
- **Beroa ondo aguantatzen duzu?**
- Ohituta nago. Cádizen soldadutza egin nuenean 45°C-ko tenperaturak izan genituen...

Bergara, Osintxu eta Antzuola inguruko langileak behar dira

Peoi industrialak, maisu industrialak (FP II), administrari laguntzaileak, txoferrak, pintoreak (pistola) eta hurrengo sailetan esperientzia duten lehen eta lehen mailako ofizialak eta pioi espezializatuak:

- Prentsa, muntaia, rebaba.
- Mekanika, elektronika
- Kontrol numerikoa
- Hotzeko estanzazioa
- Soldadura (TIG, MIG, gasgarra, aluminioa, kobrea)



Kurrikuluma eta Nortasun Agiri Nazionalaren neurriko argazkia bidali Donostiako 1.846 / 20.006 posta kutxatilara, kartazalean postuaren izena eta bizilekua adieraziz.

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera
San Lorentzo, 25 BERGARA

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

ETXEBIZITZA

Pisua alokatzen da Fuengirolan eta apartamentua Biarritzen. ☎ 76 05 37 (gauzez).

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Garaje bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

Baserría salgai Elosun. ☎ 76 57 24.

Garajea alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87.

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Estudioa alokatzen da Benidormen. ☎ 76 23 43.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Pisua salgai Azkarruntzen (merke). ☎ 81 36 58.

Etxea salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

Pisua alokatzen da Arrásaten. ☎ 77 14 24.

Etxea salgai Aranerrekan. ☎ 76 56 75.

Garajea salgai Burdiñaten. 3 milioi. ☎ 76 31 79.

Pisua alokatzen da San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

Pisua salgai Zarautzen. ☎ 78 19 50.

DENETARIK

Denda karroa salgai. ☎ 76 21 96.

Kawasaki ZXR 750 motor bat salgai. ☎ 76 42 47.

Yamaha XT-E Trail motorra salgai. ☎ 76 03 40.

Suzuki DR (50 cc.) motorra salgai. ☎ 78 29 79.

Motor bat salgai. ☎ 76 07 74.

Karabana bat salgai (berri-berria). ☎ 76 10 09.

Pertsona bat behar da pisua konpartitzeko. ☎ 76 03 48/ 76 06 87.

Haurrendako **bi bizikleta** eta **moto txiki** bat salgai. ☎ 76 15 76.

Pisua edo gela bat konpartituko nuke. ☎ 76 22 77 (gauzez).

Opel Kadett kotxea salgai. ☎ 86 14 16 (Nekane).

"**Benimar**" karabana oso egoera onean saltzen dut. ☎ 76 17 50 (goizez, astearretik larunbatera).

Seat Fura (SS-F) kotxea salgai. IAT pasatuta eta ondo zainduta. ☎ 76 10 39.

Macintosh LC III bat ia berria eta inpresora salgai. Merke. ☎ 76 39 36.

Burdinezko **triziklo** bat (eserleku zuria) lapurtu ziguten igandean Burdiñaten. ☎ 76 47 29.

LANA

OHO eta **BBB**ko klaseak uztailen. ☎ 76 42 08 (Nere).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Frantsez eta ingeles klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

OHOtik **UBI**ra bitarteko zientzia klaseak. Marrazketa ere bai. ☎ 76 24 31.

Kamarera lan egingo nuke. ☎ 76 16 83 (Eduarne).

Etxeak garbitu edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 10 00.

Matematika eta Zientzie-tako klaseak. ☎ 76 06 50.

Esperientziadun neska batetik ingeles klaseak ematen ditu. ☎ 76 28 16 (Maidar).

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

Abuztuan (1-15) Cambrilsen etxeke lanak egin eta haurrak zaintzeko neska bat behar da. ☎ 76 57 32.

Zaharrak edo haurrak zainduko nituzke (arratsaldez). ☎ 76 53 18 (Susana).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

OHO eta zientzie-tako klaseak. ☎ 76 03 72 (Nerea).


OHO eta ingeles klaseak uztailen (goizez). ☎ 76 17 18 (Jesus).

Pianoko klaseak ematen ditut. ☎ 76 50 59 (Mikel).

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 46 14 (Carmen).

Ordenadorez lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

ARREGUI, E.M.




ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

ESTREINALDIA BERGARAN




EGUNA: Uztailak 1, larunbata
HIRU PASE: 20.30, 22.30 eta 23.30
NAHIKARI TABERNA

POL-POL
Taberna

☎ 76 07 78





"Orain gutxi Bartzelonan izan ginen eta uztailean Lisboan eta Bartzelona bertara joango gara"

"Dagoeneko 3 kaxa ditugu eta gure asmoa sistema hobetu eta kaxa gehiago egitea litzateke"

NARTXI ETA KARLOS, TITIRITEROAK

"Titere-tekla manipulazio modu berriaz bost musika numero landu ditugu"

Nartxi Azkargortak eta Karlos Odriozolak *Re9n* (Renueven) txotxongilo antzezlanaren aurkezpena egingo dute larunbatean Nahikarin (3 saio izango dira 20.30, 22.30 eta 23.30etan). Azkargortak asmatutako titere-tekla teknika-ekin landutako sketch musikalak ikusteko aukera izango dugu.

- Zertan datza titere-tekla teknika berri hori, Nartxi?

- Urtarriletik daramat sistema honekin lanean. Orkestarekin hasi nintzen eta hortik pertsonaia gehiago egiteko aukera ikusi nuen. Pertsonaia haundiagoak egin nahi nituen, emaitza berdina zen ikusteko.

Latexarekin eginiko txotxongiloak dira, kaxa batean jarri eta teklatu baten bitartez maneiatzen direnak. Tekla bakoitzak mugimendu bat dakar eta tekla ezberdinak erabiliz pertsonaien mugimendu bateratsu eta armoniatsua lortzen da.

- Nolako emanaldia prestatu duzue larunbaterako?

- Teknika honen ejerzizio baten ondorioz sor-



Txotxongiloak teklatu baten bitartez manipulatu dira.

turiko ikuskizuna da. Manipulazio modu hau ikeritzean kaxetatik sortzen diren 5 musika numero landu ditugu: Txabi Band Orkestak Xabi Labaienen musika eskeiniko digu (Koldo Lizarralde kitar jolearen partaidetzarekin), bestalde Taun-Taunen "Izuikara haripean" lanetik Jack pertsonaia berreskuratu dugu eta orduko abesti bat (Fran Iturbek, Koldok eta Angel Díez de Guereñuk egin zuten Gabinete Caligariaren abesti baten bertsioa)

"Tekla bakoitzak txotxongiloaren mugimendu bat dakar eta tekla ezberdinak erabiliz pertsonaien mugimendu bateratsu eta armoniatsua lortzen da"

ere eskainiko da eta, azkenik, saxofonistaren pertsonaia "Blade runner" eta "Alrededor de la medianoche" filmeetako pare bat abesti joko ditu.

Iraupena 25 bat minutuko izango da eta emaldi bakoitzeko 30 bat ikusle biltzea komeniko litzateke. Horrela, saio ezberdinak eskeintzeko aukera izango dugu eta ikusleak berritzen joan ahal izango dira.


- Sistema hau lantzen jarraitzeko asmoa duzue?

- Bueno, dagoeneko 3 kaxa ditugu eta gure asmoa sistema hobetzea joan eta kaxa gehiago lantzea izango litzateke.

- Beste emanaldirik zuztatuta al daukazue?

- Bergarako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdian Nartxi sistema honen aurkezpena egin zuen eta ondoren, ekainaren lehenengotan, Bartzelonako Marathó de Spectacle jaialdian izan ginen. 2 egunetan 200 bat talde biltzen ginen eta haren ondoren Bartzelonan (uztailean 21ean) eta Lisboan antzezko eskeintzak jaso zituen. Lisboan egon ondoren Bartzelonara bueltatu tuko gara.

IPINTZAKO



futbol txapelketa

A multzoa	Punt.	Jok.	Irab.	Berd.	Gald.	G.A.	G.K.
1. A ZE FLAXA	6	3	3	0	0	12	2
2. ANGIOZAR	4	3	2	0	1	8	3
3. AMILOTX	2	2	1	0	1	12	4
4. XURRUPAK	0	2	0	0	2	3	9
5. NEKROFILIKOS	0	2	0	0	2	1	18

B multzoa	Punt.	Jok.	Irab.	Berd.	Gald.	G.A.	G.K.
1. MONGATXURRA	6	3	3	0	0	17	0
2. SHAKTALE	4	2	2	0	0	5	0
3. ARLOTEAK	2	2	1	0	1	12	5
4. LA JUVE	0	2	0	0	2	0	8
5. CAMPEONES II	0	3	0	0	3	1	19

C multzoa	Punt.	Jok.	Irab.	Berd.	Gald.	G.A.	G.K.
1. BILDURBAREK	8	5	4	0	1	24	7
2. OGIZUN	5	5	3	1	1	15	19
3. PAOK	4	5	2	0	3	12	16
4. ALTOS PORNOS	3	5	1	1	3	11	17



A Ze Flaxa



Amilotx



Angiozar



Xurruapak

▼ komentarioa

Ipintzan golak dira nagusi azken jardunaldietan eta hori igarri da golegileen sailkapenean. Bestalde, multzo bakoitzeko lehen postuak ziurtatuta daudela badirudi, Mongatxurra, A Ze Flaxa eta Bildurbarek taldeentzat. Lehen bi multzoetan 3 lehenengoak sailkatzen dira eta lehia bizia dago final laurdenerako postu bat eskuratzeko. C multzoan, berriz, azken jardunaldia oso interesgarria da. Segun eta ze emaitza izaten den talde guztiak baitauzkate aukerak 2. postuan sailkatzeko eta hurrengo faserako txartela lortzeko.

▼ golegileak

1. J.L. Etzaniz (Bildurb.) 13 gol
2. Fernando Salinero (Ogizun) 10
3. Ivan Etxebarria (Mongatxurra) 8
4. Josu Arana (Bildurbarek) 6
5. Igor Larrañaga (Arloteak) 5

▼ emaitzak

Campeones-Mongatxurra ..	0 - 6
La Juve-Shaktale	0 - 2
Paok-Altos Pornos	2 - 1
Ogizun-Bildurbarek	3 - 1
Angiozar-Nekrofilikos	6 - 0
Xurruapak-A Ze Flaxa	2 - 7
Mongatxurra-La Juve	6 - 0
Arloteak-Campeones II	12 - 1
Altos Pornos-Bildurbarek ...	1 - 9
Paok-Ogizun	3 - 6

▼ partiduak

ASTELEHENA 3

19.30: Paok-Bildurbarek
20.30: Ogizun-Altos Pornos

ASTEARTEA 4

19.30: Xurruapak-Amilotx
20.30: A Ze Flaxa-Nekrofilikos

ASTEAZKENA 5

19.30: Arloteak-Shaktale
20.30: Campeones II-La Juve
OSTIRALA 7 (Final laurdan)
19.30: A Ze Flaxa-Shaktale (*)
20.30: Mongatxurra-Ogizun (*)
(*) Azken emaitzen zai.

Bergara Kirol Elkar-teak urteko balantze positiboa egin zuen

Bergara Kirol Elkar-teak Batzar Orokorra egin zuen joan zen ostiralean. Urteko balantzea egiteaz gain, datorren urterako asmoak zehaztu ziren sailez-sail.

Aurtengo denboraldian BKEk 17 miloiko aurrekontua izan du eta defizita 1.400.000 pzta.koa izan da. Datorren denboraldirako aurrekontua 14 miloi ingurura murriztuko dute. Bazkideen kuotek, jubilatuenak izan ezik, berdin jarraituko dute: 2.000 pzta. urteko, jubilatuta eta jubenilentzat; 5.000 pzta. bazkide normalentzat; 6.000 pzta. tribuna-koentzat eta 10.000 pzta. bazkide babesleentzat.

Ez dute kobratuko

Orain arte preferente mailako taldeko jokalariek dirua kobratu izan dute, baina datorren denboralditik aurrera primak kobratuko dituzte bakarrik. Talde nagusia jokalarik gaztez osatuta egongo da eta taldeko arduradunek adierazi dutenez, "jubenil mailako taldea oso ona dator eta etorkizunean jokalariek mantentzen baditugu talde ona izango dugu". Aurten aritu diren 10 jokala-



BKEk 500 bazkide inguru ditu gaur egun.

rik alde egingo dute eta dagoneko 2 jokalarik kanpotar fitxatu dituzte. Gaztetxoei dagokienez joan zen urtean BKEk futboleko jokatzegatik urtean 2.500 pzta. ordaintzen bazuten, aurten 5.000 pzta. pagatu beharko du jokalarik bakoitzak.

Talde berria eskubaloian

Eskubaloi sailak denboraldiaren oso balorazio oso positiboa egin zuen. Izan ere 3 talde kategoriatan autonomikotan daude eta berriak izan arren, mailari eustea lortu dute. Datorren urtean 5 talde izango ditu eskubaloi sailak

eta horien artean 2. maila territorialeko talde berria sortuko da. Hor jubenil

adina pasatutako jokalariek arituko dira esperientzia hartzeko balio izango zaielarik. Eskubaloi jokalariek 10.000 pzta.ko kuota ordaindu beharko dute.

Saskibaloian dagokionez aurten egindako lan ontzat eman zuten eta datorren urterako beste talde bat aterako dutela adierazi zuten.

Pelotako ordezkariak ez ziren ostiraleko batzarrean egon, baina Iñigo Zaitegi BKEko presidentek eta Reyes Azkoitia eta Luis Mari Gutierrezek egindako denboraldi ona azpimarratu zuten.

"Udalaren aldetik diru gehiago lortzea espero dugu"

BKEk momentu honetan 3.500.000 pzta.ko dirulaguntza jasotzen du Udaletik eta Iñigo Zaitegi elkartereko presidentek datorren urterako gehiago jasotzea espero du. "Joan zen urtean 17 miloiko aurrekontutik 3.500.000 pzta. jaso genituen bakarrik. Gure ustez gehiago jaso beharko genuke, halere beste klubekin ez dugu nahi

arazorik" esan digu Zaitegik. Udalarekin irailan bilduko dira arazoa aztertzeko eta oraindik BKEko arduradunek ez dute asmatu formula berriak dirua banatzeko orduan. "Ez dakigu oraindik nola banatu beharko litzatekeen dirua, baina uste dut guri ditugun taldeengatik eta mugitzen dugun jendearengatik 6 miloi pzta. dagozkigula".

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

Kirola egiteko behar den guztia

BOLINTXO

Ibargarai, 10
☎ 76 38 32

IGARO

✓ Kosmetika eta oparigaiak

✓ Eder gela

✓ Bio Solariuma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

MONIKA MUÑOZ AUTOKROSEAN GARAILE

Monika Muñozek irabazi zuen joan zen igandean San Juanen jokaturako autokros txapelketa. Bigarren, Andrés Uribe osintxuarra sailkatu zen eta hirugarren Rafael Beloki. Bergarar onenaren saria Karlos Igarza "Aiskar"ek jaso zuen. Guztira 33 partehartzaile izan ziren eta 1.000 bat lagun inguratu ziren proba ikustera.

BERGARARRAK GAIZKI

72 txirindulari gaztek hartu zuten parte joan zen igandean jokaturako lehen urteko kadeteen VI. San Martzial Ziklismo Sarian. Alonso zarauztarra izan zen helmugaratu ziren 47 txirindularien artetik onena. Bigarren Sergio Aceituno urretxuarra sailkatu zen. Bergararrak ez ziren ondo ibili, inork ez baitzuen proba bukatu.

EUSKADIKO IGERIKETA TXAPELKETA

Asteburuan zehar Donostiako Anoetako igerilekuetan jokaturako den Euskadiko junior mailako igeriketa txapelketan Agurtzane Crespo bergararrak hartuko du parte. 14 urteko bergararrak, 100 eta 200 metro tximeleta eta 400 estilotan igeri egingo du. Agurtzanek lehen urtea du junior mailan eta asteburuko txapelketari begira gogo haundiz dagoela adierazi digu.

Eva Arevalillo

Gimnasia erritmikoan 10 urte

Eva Arevalillok 10 urte eman ditu Ariznoa Gimnasia Erritmiko taldea zuzentzen eta datorren denboraldian utzi egingo du.

- Noiz hasi zinen entrenatzen?

- 15 urterekin hasi nintzen. Ordura arte konpetitzen aritzen nintzen eta entrenadore falta zegoenez txikiak entrenatzerantz sartu nintzen.

- Zer da zailagoa entrenatzea ala konpetitza?

- Norberaren arabera da. Niri klaseak ematea gehiago gustatzen zait. Alicia de Cesar entrenatzaile iruñearrekin entrenatzen genuen eta nahiko ongi moldatzen ginen. Gainera niretzat gimnasia oso sakrifikatua zen gorputzak ez zidan ematen eta.

- Asteazken zehar zenbat ordu entrenatzen duzue?

- Bergaran gauden mailarako gutxi entrenatzen dugu. Arazoa leku falta da, ez baitugu lekurik behar dugun denboran entrenatzeko. Maila federatua aritzeko egunero 2 edo 3 ordu entrenatu behar da.

- Hasi zinenetik ze bilakaera izan du gimnasia erritmikoak Bergaran?

- Bilakaera handia izan du batez ere Gipuzkoan. Gu hasi ginenean ez zegoen txapelketarik, gero Kultur Ekintzak Iruñeko entrenatzaile bati deitu zionean Bergaran aurrera egin zuen gimna-

siak. Askok eboluzionatu du, lehen ez zegoen txapelketarik eta orain eskola kirolekik hasita seniorretara arte daude txapelketak.

- Teknika aldetik ere hobetu zen ezta?

- Bai, orain Errusiatik etorritako entrenatzaile asko dabil eta horrek hobetu egin du prestakuntza. Lehen balletari ez zitzaion garrantzirik ematen eta orain, aldiz, garrantzi handia du. Orain lehen pentsaezinak ziren gauzak egiten dira gorputzarekin. Baliabide fisi-

koak topera eramaten dira gaur egun.

- Entrenatzen izan zaren 10 urte hauek konpetatsen al dizute?

- Bai, bai, noski. UBI bukatu nuenean ikasketen eta entrenatzearen artean erabaki behar izan nuen eta ez naiz damutzen hartutako erabakia-ekin.

- Zergatik laga behar duzu?

- Lanean hasi behar dut eta ez daukat denborarik. Baina ahal dudanean lagunduko dut.



"Lanean hasiko naiz eta ez daukat entrenatzeko astirik".

"Errusiatik etorritako entrenatzaileek asko hobetu dute hemengo gimnasiaren maila"



San Pedro kaleko jaixak

Lehen, itxuria danez San Pedro kaleko jaixak ospatzen zien eta hola, San Pedro egun baten (1956ko ekainaren 29xan) bertako kuadrilla bat alkartu eta Espoioian erretratu polit haur etara zeben.

Ezkerretik eskumara:

Zutik: Izaskun Otaño, Pili Etxabarri, Arantxa Otaño, Begoña Otaño, Mila Mazorriaga, Julio San Vicente, Iñaki Marzan, Jose Kamatxo, Hilario Otaño, Jabier Otaño.

Jarritta: Ana Mari Otaño, Karmelo San Vicente, Anton Zabala, Francisco Mazorriaga, Luis Abajo, Jose Antonio Otaño, Anjel Marzan.

Felipe Iñarra

Erretratua: Karmelo San Vicente

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte, 8 BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxa: 76 04 77

- Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
- Masajeak, solariuma, perikura, estetika...

Josefina

Espaloia, 4 ☎ 76 35 38

HARATEGIA- URDAITEGIA

Sebastian Imaz

Bildotsa, txahala eta oilazkoak

Harane Erreka, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA

ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea

☎ 76 23 48



GUIPUZCOANA

Paketean garraio eta banaketa

BERGARA

San Juan Erreka. Elgetara bidea.

Tfnoa: (943) 76 36 42 / Faxa: (943) 76 54 25

HALTZARI

Bolu, 24 behea

BERGARA (Gipuzkoa)

Tfnoa eta Faxa: (943) 76 30 57



Aprobetxa ezazu

FAGOR  en

SUKALDE ALTZARIAK

eskaintza
paregabea

Jantzi ezazu

kolore berriekin

zure

*kalitate*dun

sukaldea

ESKAINNTZA BEREZIA:

Uztailaren 15era arte, %30eko
deskontuak modelo berri guztietan

